

BALIOA

App honen balio-proposamena pertsonak kirola egitera motibatzea eta tokiko dendak babestea da. Erabiltzaileek puntuak irabazten dituzte jarduera fisikoak egiten dituzten bitartean, eta puntu horiek kirol arropa dendetan truka daitezke. Horrela, osasuna hobetzen duten bitartean, dendetarako bezero berriak erakartzen eta ikusgarritasuna irabazten laguntzen dute.

Balio proposamena kuantitatiboa da, erabiltzaileek puntuak eta deskontuak lortzen dituztelako, eta kualitatiboa ere bai, osasungarriagoa izatearen eta tokiko merkataritzari laguntzearen onura pertsonalarekin. App-ak bizimodu aktiboa sustatzen du, eta erabiltzaileen eta tokiko komunitatearen arteko lotura indartzen du.